

CIBOURE PART
en LIVRE!
LA LIBERTÉ!

ZIBURU
HARTU LIBURU
ASKATASUNA!



du
28 Juin
au
18 Juillet

Ekainaren
28tik
Uztailaren
18 rat

Mr Tou - Diane Le Feyer

Editoriala

Askatasun bolada bat dabil 2023ko Ziburu Hartu Liburu ekitaldian gaindi!

Eta Mortelle Adèle izanen da aurtengo izarra!

Liburu saltegietakoa fenomeno bat den heroi suhar eta maitagarri hori baino hoberik ez da gazteak haien mugak gainditzera bultzatzeko, aurreiritziak hausteko, laketa dutenarengana joatera ausartzeko, batzuetan desberdin izatea onartzeko, eta horretaz gozatzeko!

Orduan, *Ciboure part en livre – Ziburu hartu liburu* ekitaldiaren egitarauak liburuek eta literaturak gure egunerokotasunean ekar dezaketen askatasuna dastatzeko gomita luzatuko die ziburutarrei.

Eta hiriko auzotegi guzietan ibiliko da animazio ugariaren bidez: liburutegi ibiltaria, irakurketa-ibilaldia Zokoa inguruan, erakusketa bat eta ikusgarri bat mediatekan eta beste hainbeste sorpresa!

Zatozte ekainaren 28tik goiti literatura arloko bihozkadak eta berritasunak partekatuzera familian edo lagunaren artean!



ZIBURU HARTU LIBURU HASI BAINO LEHEN...

>> Ekainaren 12tik 20ra <<

**Ziburuko ikasleak gazteendako liburuen
idazleak ezagutzera gomitatuak
izanen dira!**

Ikasturte hondar honetan, Ziburuko eskoletako eta kolegioko ikasleei lurraldeko idazleekin une berezi bat partekatzea proposatzen diegu. Haien liburua ezagutzeko eta liburuari dagozkion lanbideei buruz trukatzeko aukera ukanen dute.

Jean-Christophe Tixier idazlea Piarres Larzabal kolegioko lehen urtekoekin bilduko da; Hiriko eskoletako 2. zikloko ikastaldeen, Leire Salaberria eta Hélène Druvert topatuko dituzte.



>> Irailaren 15a arte <<

12 ilustratzaile erakusketan

La maison est en carton, gazteendako literatura arloko sortzaileetan berezitutako argitaletxeak arlo honetako irudigileen panorama bat proposatuko du. Denek dute berezitasun bat, izan sormena edo originaltasunagatik. Sortzaileen lanari balioa emateaz gain, erakusketa honen xedea da ttipien eta handien begirada artistikoa piztea.

Biblio64 - rekin partaidetzan



FR

- 📍 Mediatekan
- 👤 Familientzat
- ✍️ Sartzea libre



>> Uztailaren 17a arte, astelehena <<

Bookface desafioa! Saia zaitez liburu-txeke bat irabazteko!



Bookface, hau da argazki-potreta bat egiteko artea, liburu baten azala aurpegi aitzinean ezarriz. Zuri dagokizu sormena eta originaltasuna erakustea zure liburuak edo kari honetara mediatekak esku utzitakoak erabiliz! Desafioa altxatuko ote duzu?

Parte hartuz, uztailaren 18ko zozketarako zerrendan sartua izanen zara!

Argazki horiek erakutsiak izanen dira liburutegi ibiltarian eta mediatekan.

- 📍 Nahi duzuen lekuan
- 👤 25 urte arte





ZIBURU HARTU LIBURU

>> Ekainaren 28a, asteazkena, 15:00etan
19:00etan <<

Etzanaldi musikatuak eta kontatuak

Musika klasikoak eta hemen eta hango ipuinek Ithurri Baita etxeko lorategian dardaratuko dute egun baten denboran!

Aurten ere, Ravel akademiako Ziburuko Hiriaren saridunak errezibitzeko ohorea izanen dugu! Etorkizun handiko hiru gazteek (Margaux Poguet, soprano, Denys Zarubaiko, piano joilea eta Albéric Boullenois, biolontxelo joilea) Amaia Hennebutte kontalariarekin solastatuko dute, musika eta literatura esperientzia zoragarri bat eskaintzeko!

Hiru ipuin proposatuak izanen dira, bi frantsesez eta bat euskaraz. Liburuxka bat utzia izanen da ikusleen esku, ipuinen itzulpenarekin. Lasai jarri etzaulkian eta zure burua bidaiatzera utzi!

📍 **Iturri Baita etxeko lorategian**

🕒 **Ordu bat inguru**

👤 **Denentzat, 6 urtetik goiti**

✍️ **Izena eman behar Kultura, Ondarea eta Elkarte Bizia Zerbitzuaren aldean**

EUS
FR



>> Uztailaren 4a, asteartea, 19:00etan <<

Irakurketa-ibilaldia Libreplume elkartearekin

Egunaren bukaeran, Zokoan ibil zaitez Libreplume elkartearen irakurketen erritmoari jarraikiz!

Erosoago ibiltzeko, gomendatzen zaituztegu kirol oinetakoak janztea. Esku botoil bat ur eta piknika eramaten ahal duzue momentua luzatzeko irakurketen ondotik.

2022-tik goiti, Libreplume elkartearen helburua da gazteendako literatura sustatzea haur guzientzat, baita haien inguruan dauden helduentzat ere (gurasoak, animatzaileak, lehen haurtzaroko profesionalak...), eskolagabetasunaren prebentzioa xedetzat hartuz.

📍 Koxe Arbiza plazan

👤 Familientzat

📝 Izen ematea gomendatua Kultura, Ondarea eta Elkarte Bizia Zerbitzuaren aldean

EUS
FR



Uztailaren 11, 12, eta 13a, 10:00etatik 13:00era




**Liburutegi ibiltaria zure auzotegian jartzen da!
Mediateka zuregana dator Ziburuko auzotegietan!
Aldi bateko irakurketa gunek apailatuak izanen dira
Marinela merkataritza guneko atarian, Gurutze Gorria
plazan eta Zubiburu auzotegian.**

*Goiz osoan zehar, liburu andana bat kontsultatzen ahalko dituzu
bertan eta auzotegi bakoitzak ukanen du bere berezitasuna!*

>> Uztailaren 11, asteartea <<

Lako16 argitaletxearekin

Lako16 argitaletxeak liburuak frantsesez eta euskaraz argitaratzen ditu, besteak beste Atto pertsonaiaren inguruko serie izarra! Pierre Laffont argitaratzaileak irakurketak eta liburu aurkezpenak proposatuko dizkizu.




-  **Zubiburun**
-  **Denentzat**
-  **Sartzea libre**

EUS
FR

>> Uztailaren 12a, asteazkena <<

Lehen haurtzarroari eskainitako goiza!

Entzun ezazu *Fany Comptines* & cie konpainiak irakurriko, kontatuko eta kantatuko dizuna, "Hegazti zaleak" gaiaren inguruan! Eta irakurketen ondotik, haurrek eskulan tailer batean parte hartzen ahalko dute!

-  **Marinela Plazan**
-  **0-4 urte**
-  **Sartzea libre**

FR

*Ciboure Cité d'artistes
elkarteak irudigintza tailer
bat proposatuko die handiei.*

>> Uztailaren 13a, osteguna <<

Lako16 eta Waouche argitaletxeekin

Lako16 argitaletxeak liburuak frantsesez eta euskaraz argitaratzen ditu, besteak beste Atto pertsonaiaren inguruko serie izarra! Euskal kostaldean kokatutako Waouche argitaletxeak ttipien gogoia ekologiaren inguruko galderei pizteko ipuinak proposatzen ditu frantsesez eta euskaraz, begirada goxo baten bitartez.

EUS
FR

*Ciboure Cité d'artistes
elkartek irudigintza tailer bat
proposatuko die handiei.*

- 📍 **Gurutze Gorriko plazan**
- 👤 **Denentzat**
- ✍️ **Sartzea libre**

Eta egunero, Bookface desafioa erakusketa ibiltaria ikus ezazu!



>> Uztailaren 17a, astelehena,
15:00etatik 19:00etara <<

Pista joko literarioa eta liburutegia ibiltaria

Pista joko literarioa eta liburutegi ibiltaria

Tomi Ungerer idazlearen hiru ohoinek urre mokor gehiago nahi dituzte beren altxorrean. Zaldi karrosen erasoaldi berri bat apailatzen ari dira. Zure laguntza behar dute sakabanatutako armak biltzeko eta prestatzeko! Eginkizun arriskutsu honetan laguntzeko gai izanen ote zara?

Libreplume elkarteak sortutako ikerketa.

Badu zenbait hilabete *La Grande Illusion* liburu saltegia jarri dela Hendaiaiko Errepublika plazan. *La Grande Illusion* saltegiaren karabana ibiltaria Zokoan jarriko da arratsalde baten denboran, frantsesez, euskaraz eta gaztelerazko 700 liburu aurkezteko, baita joko eta irakurketa gunek proposatzeko ere.

FR

- 📍 Koxe Arbiza plazan
- 👤 Denentzat
- ✍️ Sartzea libre



>> Uztailaren 18a, asteartea, 16:00etan
eta 19:00etan: <<

"Maneiu poetikoa" ikusgarria Raoul Lambert konpainia

Gogoratzen ote zara, iaz, musika esperientzia harrigarri hartaz, Raoul Lambert konpainiako magialariekin? Aurten ere berriz datoz ikusgarri harrigarri berri batekin, zaharberritutako mediatekaren erdi-erdian! Bi "sorgin-hizlariak" arasetan eta liburuetan murgiltzera gomitatuko zaituzte hitzen indarra salatzeko.

📍 Mediatekan

👤 12 urtetik goiti

🕒 55 min

✍️ Izena eman behar Kultura,
Ondarea eta Elkarte Bizia
Zerbitzuaren aldean

FR





Argibide praktikoak

Egitarauan sartutako ekitaldi guziak urririk dira.

Kultura, Ondarea eta Elkarte bizia zerbitzua

06 10 75 45 61

animations@mairiedeciboure.com

billetterie-ciboure.mapado.com

Mediateka

05 59 47 12 93

mediatheque@mairiedeciboure.com



Interneten eta sare sozialetan segitu



www.ziburuko-hiria.eus

 [cultureciboure](https://www.facebook.com/cultureciboure)

 [mediatheque.ciboure](https://www.facebook.com/mediatheque.ciboure)

Ziburuko hiria • 05 59 47 26 06 • mairie@mairiedeciboure.com

Argitalpen zuzendaria: Ziburuko auzapeza

Testuak: Kultura, ondarea eta elkarte bizitza zerbitzua • Sortzailea: Marie Surzur, komunikazio zerbitzua

Liburuxkaren apailatzea: Donibane kopi

Itzulpena: Argibxu Errotabehere • Argazkiak: Mapiurdi, Lefebvre Amalvy, Ville de Ciboure

Inprimaketa: Donibane kopi • Liburuxka hau birziklatutako paperean inprimatua izan da.

Licence 1 : PLATESV-D-2022-006462 -

Licence 2 : PLATESV-D-2022-006464 - Licence 3 : PLATESV-D-2022-006463